


LAGUNTZEN



Nola duzu izena?

Jose Luis Paz Perez

Nun jaio zinen eta noiz?

Donostian, 70/04/19an

Nun bizi zara?

Errenterian

Estudiatu edo lana egiten duzu?

Orain lana egiten dut, GUREA enpresan.

**Zenbat urte daramazu Lezora etor-
tzen?**

Ez naiz gogoratzen, baina asko.

Eta zergaitik Lezora?

Orain dela asko nere aitonak, Lezon bizi ziren nere amak esaten didan bezala, eta ondo pasatzen dutelako.

**Baina gehien gustatzen zaizuna
jaiak dira ezta?**

Bai, baina edozein ekintzetan parte hartzea gustatzen zait, tanborrada, ohe elastikoak, dantzari eguna, buruhaundiak, AEK eguna, trapujale eta allerruko futbol taldea kanpoan jolasten duenean, batzuetan joaten naiz ere.

Zerbait dagoenean beti ikusten zaizu laguntzen? zergaitik?

Ni beti prest nago laguntzeko eta jendeak ezagutzen didanez, beti deitzen didate laguntzeko.

Laguntzen duzunean norbaitek, ematen al dizu zerbait?

Bai, elkarteek edariak ematen dizkidate, trapujalekoek ogitartekoak eman zizkidaten eta Altamiran afaltzera konbidatu egin ninduten.

Nola jakiten duzu zerbait ospatzen denean.

Astebukaeretan Lezon nagoenez, beti jakiten dut, orain andregaiia dut, Ana du izena, berari ez zaio Lezo horrenbeste gustatzen, baina nik jarraituko dut etortzen, beno uzten ba nau.

Zer da gehien gustatzen zaizuna egitea?

Tanborradan aulkia eramatea, zuzendaria igoteko.

Jose Luis Egia